

**UPV/EHUko GERENTEAREN 2017ko IRAILAREN 4ko ERABAKIA, "GESTIOKO TEKNIKARIA (MEDIKUA)" LAN-POLTSA OSATZEKO HAUTAKETA-PROZESUA BEHIN BETIKOZ EBAZTEKO DENA. LAN- POLTSA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN ALDI BATERAKO BEHARREI ERANTZUTEKO DA.**

UPV/EHUko gerentearen 2016ko otsailaren 19ko erabakiaren bidez dei egin zen, "Gestioko Teknikaria (Medikua)" lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesua egiteko, administrazio eta zerbitzueta pertsonalaren berezko premiak aldi baterako bete daitezten.

Deialdiaren zazpigarren oinarriak ezarritakoarekin bat etorrira, hautaketa-prozesua behin amaiturik, epaimahaiak ordenatu zituen lehiakideak, eta proposamen hori 2017ko ekainaren 21ean eman zen argitara seigarren oinarriaren seigarren atalean zehaztutako tokietan eta, honen ondoren, deialdiak dioenari jarraiki, zerrenda igorri da Gerentziara prozesua ebazten duen behin betiko erabakia eman dezan.

Epaimahaiaren erabakiaren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahal zitzaien EHUko gerenteari, erabakia argitaratu eta hilabeteko epean.

Erreklamazio egiteko zabalduetako epean ez da helegiterik aurkeztu. Beraz, Gerentziak, errektorearen 2013ko urtarrilaren 30eko erabakiaren bidez (otsailaren 13ko EHAA) pertsonalaren alorrean eskuordetu zaizkidan ahalmenez baliatuz,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** "Gestioko Teknikaria (Medikua)" lan-poltsa handitzeko hautaketa-prozesuaren emaitzak onartu eta behin betikotzat jotzea, epaimahaiak proposaturiko ordenazioaren arabera, 2017ko ekainaren 21ean argitaratuta.

**Bigarrena.-** Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, baina interesatuak berraztertze errekurtsioa aurkez diezaioke Gerentziari, hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jar dezake zuzenean administrazio-auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean. Erabakia UPV/EHUren web orrian (Administrazio eta zerbitzueta langileak, Hautaketa eta Hornikuntza) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko dira kontatzen epe horiek.

Leioan, 2017ko irailaren 4an.

Errektoreak 2013ko urtarrilaren 30ean eskuordetutako eskumenak erabilia (2013ko otsailaren 13ko EHAA)

GERENTZIA

Miren Lorea Bilbao Artetxe

